

Nitrogeno oxidoak

Nitrogeno dioxidoa (NO₂) ibilgailuen trafikoa iturri nagusi duen kutsatzailea da. Egindako jarraipenean ikusi da kutsatzaile hori neurtzen den estazio guztietan jaitسي dela, nahiz eta jaitسيera desberdina izan.

Taula honetan ikus daitezke aurreko 4 urteetako batez bestekoekiko aldeak eta murrizketa-ehunekoa:

NO ₂ (µg/m ³)	Añorga	Avda. Tolosa	Ategorrieta	Easo	Puio	Zubieta
2016-2019	18	17	27	28	15	11
M30 – A12	6	7	14	21	7	6
Aldea	12	10	13	7	8	4
Aldaketa portzentaia (%)	67	58	48	26	53	40


Oro har, murrizketarik handiena (% 53-67) mailak txikiagoak ziren eta industria-jarduerak eta gertuko obrak gelditu diren eremuetan gertatu da.

Erdiguneko estazioetan (Ategorrieta eta Easo) murrizketa txikiagoa izan da, hiriko zirkulazio-fluxu handiena duten bideak izaten jarraitu dutelako eta inguruan lehentasunezkoztat jotzen diren zenbait obra mantendu direlako.

Eguneko batez bestekoak maila minimoetara jaitسي dira (6-7 µg/m³) estazio guztietan, eta oso zaila da gehiago jaitea. Kontuan hartu behar da maila nahiko baxuetatik abiatzen zela.

Kutsatzaile horrentzako eguneko mugarik ez badago ere, bai araudiak bai Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) urterako 40 µg/m³ -ko muga ezartzen dute.

Grafiko honetan ikus daitezke martxoaren 30etik apirilaren 12ra bitartean lortutako erreferentzia-mailak eta batez bestekoak:



Partikulak (PM₁₀)

Partikulak hiri-inguruneetako kutsatzailerik kaltegarritzat jotzen dira gaur egun, NO₂-arekin batera.

Giza jarduerak sortutakoak trafikotik, jarduera industrialetik, obretatik edo etxeke berogailuetatik datoz. Jatorri naturala dutenak, aldiz, Saharako hautsetik, polenetik edo itsas aerosoletik etor daitezke, besteak beste.

Egindako jarraipenean ikusi da kutsatzaile hori neurtzen den ia estazio guztietan jaitsi dela, nahiz eta jaitsiera desberdina den eta aurreko kasuan baino txikiagoa.

Taula honetan ikus daitezke aurreko 4 urteetako batez bestekoekiko aldeak eta murrizketa-ehunekoak:

PM10 (µg/m ³)	Añorga	Avenida Tolosa	Ategorrieta	Easo	Puio	Zubieta
2016-2019	14	14	17	18	13	12
M30 – A12	13	9	14	12	13	12
Aldea	1	5	3	6	0	0
Aldaketa portzentaia (%)	9	33	17	33	-2	1

Kasu honetan, murrizketarik handiena (% 17-33) trafikoaren kontrolerako estazioetan gertatu da.

Dena den, apirileko lehen hamabostaldian polen mailak gora egin dute hirian, eta horrek eragin du jaitsierak hain nabarmenak ez izatea. Izan ere, murrizketa txikiagoa da estazio bakoitzaren inguruan dagoen zuhaitz kopuruaren arabera (Puio, Zubieta, Añorga, Ategorrieta ...).

Tamaina handieneko partikulen kasuan (PM₁₀), araudiak eta Osasunaren Mundu Erakundeak (OME) eguneko 50 µg/m³ -ko muga ezartzen dute.

Grafiko honetan ikus daitezke martxoaren 30etik apirilaren 12ra bitartean lortutako erreferentzia-mailak eta batez bestekoak:

